

103. ALDIZKARIA - 2010ko abuztuaren 25a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

UHARTE

Ordenantzaren behin betiko onespena

Uharteko Udalak, 2010eko martxoaren 25ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen aldaketa Ibilgailuak espaloietan barna pasatzeko lizentziak eta eremu publikoetako erreserbak arautzen dituen ordenantzan.

Hasierako onespenaren iragarkia 2010eko 59. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 14an, eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu zen. Jendaurreko epea iraganda, Joaquin Azparrenek aurkeztutako alegazioa zati batean baietsi da, eta 2010eko ekainaren 30ean egin bilkuran behin betiko onetsi da ordenantzako aldaketa, bai eta agindu ere agindu da haren testu osoa argitaratzeko, behar diren ondorioak izan ditzan.

Uhartan, 2010eko uztailaren 29an.-Alkatea, Javier Basterra Basterra.

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOAN SARTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Eremu publikoan edo espaloian ibilgailua sartzea da zergapeko egintza.

Ordaindu beharra

3. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sorraraziko dira, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Tasak sei hilabete behin ordaindu beharko dira, Udalaren ordenantza fiskalean zehaztutako epe eta baldintzetan.

Aprobetxamendua hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhilabete naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierakoa edo bukaerakoa ere barne harturik.

Ordaintzera behartuak

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta Ordenantza honetako 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, toki entitatearen jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko aprobetxamendu bereziko kasuetan, zergadunaren ordezkotza izanen dira ibilgailuendako sarrera horien sarbide diren finka eta lokalen jabeak. Halaber, azken hauek zilegi izanen dute dagokien onuradunei kuotak ordainaraztea.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako aprobetxamendu bereziei zein erabilera pribatiboei dagozkien tasak horren gaineko ordenantza fiskalak edo haiek arautzeko udal erabakiek gobernatuko dituzte.

Oinarriak, tasak eta tarifak

5. artikulua. Garaje bakoitzaren pasabidea espaloian 3 metro zabal izanen da gutxienez, eta gehienez 6 metro.

Aparteko kasuetan soilik, interes publikoak eta txosten tekniko batek justifikatuta handitzen ahalko da muga hori, hala nola sartu eta ateratzeko iraganbide gehiago behar direnean ibilgailu kopurua handia delako edo beste kasu berezi arrazoitu batzuetan.

Lizentzia hauek murriztaileak direlako, interes publikoaren onerako, inguruko edo hurbileko lokalek (batez ere titular bera badute) ez dezaten lizentzia horien onurarik hartu begiratuko da, pasatzeko lizentzia baten bidez lotu edo erabil daitekeela uste bada.

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza fiskal honen eranskinean agertzen dira.

7. artikulua. Udalaren iritzia araber, prekarioan eta hirugarrenei kalterik eragin gabe ematen da beti pasabiderako lizentzia.

8. artikulua. Pasabiderako lizentziak ez du eskubide subjektiborik sortzen, eta Udalak eskatu ondoan, haren titularrak bertan behera utzi beharko du, eta haren kontura espaloiak eta zintarria lehen zeuden bezala jarri.

9. artikulua. Honen arabera emanen dira lizentziak:

-Eskabidea eredu ofizialaren arabera aurkeztea (eredua erantsia).

-Pasabidea etxabeen bada, ondoko agiriak ere aurkeztu beharko dira:

a) Garajearen azalera 100 m² baino txikiagoa bada.

-Ezaugarriak eta ekipamendua arrisku txikiko lokal batekoak direla azaltzen dituen ziurtagiria, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.

-Suteen kontrako atekak homologatuak direla dioen ziurtagiria.

-Itzalgailuak homologatuak direla dioen ziurtagiria.

-Larrialdiko argiteria eta ebakuazio eta babes seinalizazioa paratuta dela dioen ziurtagiria.

b) Garajearen azalera 100 m² baino handiagoa eta 150 m² baino txikiagoa bada.

--Lokala gainerako eraikinetik suteen kontrako sektore gisa bereizia dagoela azaltzen duen ziurtagiria, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.

-Suteen kontrako atek homologatuak direla dioen ziurtagiria.

-Itzalgailuak homologatuak direla dioen ziurtagiria.

-Larrialdiko argiteria eta ebakuazio eta babes seinalizazioa paratuta dela dioen ziurtagiria.

c) Garajearen azalera 150 m² baino handiagoa bada, jarduera sailkatuaren proiektu bat eginen du teknikari eskudunak, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, Ingurumena Babesteko Eskuhartzeari buruzko legearen atal guztiak justifikatuta.

10. artikulua. Ibilgailuak espalaira pasatzeko zintarria jaisteko lanak egitea beharrezkoa denean (egin gabe daudelako), Erabilera publikoko lurretan zangak irekitzeko eta eremu publikoko zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egiteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaindu beharko dira.

Antzaldatze edo jaiste horrek ez du aldatuko fatxadako marran ezarritako sestra ofiziala, eta Udal honek zerbitzu teknikoek baimendu eta gainbegiratuko dute lana.

Pasatzeko lizentziaren titularra bera da, objektiboki, erabilera publikoko zola edo zintarriak jasan dezakeen kalte ororen erantzule. Horregatik, Udalak eska dezakete hura konpondu, sendotu edo nahi den pasagunerako egokitzeko, bai lizentzia eman aurreko baldintza gisa, bai lizentzia eman ondoko edozein unetan.

11. artikulua. Seinalizazioaren plakak Udalak emanen ditu ezarritako tasa ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu ondoan, eta lizentziaren titularraren eginkizuna izanen da haiek paratu, mantendu, behar izanez gero berriz paratzea, eta erabilera edo aprobetxamendua bukatutakoan kentzea. Lizentziaren kontzesioko jarraibideen arabera paratuko dira.

Orobat, interesdunak marraztu beharko ditu seinalizazio horizontalak, indarra duen Zirkulazioaren gaineko Kodearen hasieran jasotzen den bezala, baita haiek zaindu ere.

12. artikulua. Lizentziaren titularrak erabilera edo aprobetxamendua burutu eta gero zentsuan baja ematera beharturik daude, eta zintarria eta espaloia lehengoratzera. Era berean, seinalatzeko plakak ere kendu beharko dituzte. Bertzela bada, ulertuko da aprobetxamendua jarraitzen duela, zintarria eta espaloia lehengoratu eta plakak kendu arte.

13. artikulua. Udal zerbitzuek eta albienteek Udalari jakinaraziko diote lokalek edo eremuek, pasabiderako lizentzia eduki gabe, aprobetxamendua egiten dutenean; horrek espediente bat irekitzea ekartzen ahal du, urtean 120 euro bitarteko zehapena ekartzen ahal duena.

Azken xedapena.-Ordenantzan aldaketa egiteko testu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunean.

TARIFEN ERANSKINA

I. Epigrafea.-Ibilgailuen pasabidea, etxebizitzei lotutako garajeak eta garaje pribatuak merkataritzako nahiz industriako ibilgailuentzat, urtean:

1. Ibilgailu bakoitza 20 euro eta metro lineal bakoitzeko: 15 euro.

2. Lekua erreserbatzea, metro lineal edo horren zati bakoitzeko, urtean:

-Erreserba, gau eta egun: 35,40 euro.

-Erreserba, ordutegi mugatuan: 17,75 euro.

-Pasabideko plaken prezioa, erosketaren kostua.

Tarifa horiek Udalak erabakita eguneratu eta/edo aldatuko dira.

Uhartan, 2010eko ekainaren 30ean.-Alkatea, Javier Basterra Basterra.

Iragarkiaren kodea: L1013041